

RETINAL proiektuaren hedapen digitala hasi da

Retinal proiektua mundu digitalean sartu da bere produktu eta zerbitzuak ezagutzera emateko. ULMA Medical Imaging barruko jarduera bat izanik, bere ibilbideari 2012. urtean ekin zion.

Joan zen urtean 1.45 M€-ko europar diru laguntza bat eskuratu ostean, proiektuak indartu egin du bere jarduera eta une egokian dago tresna digital desberdinen bitartez kanpora aurkezteko.

RETINALen egungo proposamena, berez, segundo gutxitan erretinopatia diabetikoa diagnostikatzeko gai izango den soluzio bat garatzean datza.

Hona hemen ULMA Medical Imagingeko lantaldeak merkatu sanitarioko kanal desberdinetan sustatzeko gaketzat jo duen tresna: web orri berria, diseinu erakargarri eta garbikoa, edozein gailuri eta sare sozialei

egokitzeko modukoa.

Gainera, bideo bat ere aurkezten da, non era bisualean azaltzen baita zertan datzan erretinopatia diabetikoaren* egungo arazoa eta ULMAK proposatzen duen soluzio erraz, azkar eta segurua, gaixotasunaren detekzio goiztiarrerako adimen artifizialean oinarritzen dena.

* Erretinopatia diabetikoa da ikusmen galeraren eta itsutasunaren arrazoi nagusia diabetesa daukaten pertsonen artean.

Batu zaitetz eta lagundu gure proiektua zabaltzen!

www.ulmamedicalimaging.com



